



## EUSKAL JOLASEN IKASTAROAK 2004-2005 IKASTURTEKO EMAITZAK

### Datu orokorrak:

Urtetik urtera emandako ikastaroen ordu kopurua handituz doa; 98-99 ikasturtean 50 ordu eta besterik ez bagenituen eman, bost urte beranduago (03-04) hamar aldiz gehiago eman genituen: 511 ordu. Aurten, %20-ko igoera izan dugu, guztira, 615 ordu eginez:

- Emandako ordu kopurua: **615 ordu**
- Talde kopurua: **56 talde**
- Jasoleak: **952 lagun**

### Egindako antolatzaileak eta ikastaroak:

Aurten ere, Euskal Herriko ia txoko guztietara iritsi gara; Erronkaritik Santurtzira, Otsagabiatik Aiarara eta Irundik Laudiora.

#### **IRAKASLEEKIN:**

- **Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamenduko Euskara Zerbitzua:** Uharte (EIBZ), Zizur(San fermin), Lesaka, Iruñea (Arturo Kanpion), Otsagabia, eta Erronkari.
- **Irale – Eusko Jaurlaritza:** Zarautz (Maria Inmaculada), Irun (Txingudi), Oñati (Santa Eskolastika), Zumarraga (Gainzuri), Errezil, Bilbo (Nuestra Señora de Begoña), Laudio (Lateorro), Gernika (La Merced), Areatza, Santurtzi (Bihotz Gazte), Aiara (Etxaurren), Errenteria (Langaitz) eta Andoain (La Salle).
- **Berritzeguneak:** Eibar (Eibarko Berritzegunea), Errenteriako Koldo Mitxelena eta Hondarribiko Talaia (Irungo Berritzegunea)
- **Huhezi- Homologazio ikastaroak:** Bergara eta Durango
- **Besteak:** Tolosa (Hirukide eta Laskorain), Pasaia (Haur Eskola), Azpeitia (Uztaro haurtzaindegia).

#### **AISIALDIKO HEZITZAILEEKIN:**


- **Begirale ikastaroetan:** Zumarraga (Urola Garaiko Udalak), Elgoibar (Debabarrenako Udalak), Irun (Udala), Tolosa (Kazkabarra eta Laskorain), Donostia (Urtxintxa) eta Zarautz (Urola Kostako Udala Elkarte).
- **Udalekuetarako prestakuntza ikastaroak:** Zumaia (Udala), Hernani (Udala), Getaria (Udala), Pasaia (Udala) eta Villabona (Udala).
- **Besteak:** Tolosa (Samaniego ikastetxea) eta Oñati (Mikel Aozaraza ikastetxea)

#### **GURASOEKIN:**

- Lazkao (Euskal Eskola elkarte), Eskoriatza (Udala), Zumaia (Udala), Ordizia (Udala), Bilbo (Zurbaran ikastetxea), Artziniega (Aiarako Kuadrilla).

## Partehartzaileen ebaluazioen emaitzak:

Ikastaroetan parte hartu dutenak oso gustura geratzen direla esan dezakegu. Ikastaro guztietan egindako ebaluazioen emaitzek hori azaltzen digute. Atal guztietan balorazioen emaitzen batez bestekoa bikain ematen du.



### BALORAZIEN PUNTUAZIOAK:

- 5: Oso egokia, bikain, erabat
- 4: Egokia, ongi, asko
- 3: Erdibidekoa, erdiko maila
- 2: Eskasa, gaizki, gutxi
- 1: Oso eskasa, oso gaizki, ezer

### EGINDAKO GALDERAK:

- **HELBURUAK:** Ikastaroaren helburuak bete dira? Ikastaroaren bidez bete al dira lortu nahi zenituen helburuak?
- **EMAILEAK:** Emaleak ikastaroaren edukia menperatzen du? Irakasleen prestakuntza, ikastaro konkretu honetarako, nola baloratuko zenuke?
- **EDUKIAK:** Edukiak egokiak izan dira? Ikastaroan landutako programa aproposa izan al da?
- **TXOSTENA:** Banatutako txostena egokia izan da? Erabilitako materialari buruz zein iritzi duzu?
- **ANTOLAKUNTZA:** Antolaketari buruzko iritzia eman